

**BURGU**

5460

**Eskuduntzak eskuordetzea**

Alkate-lehendakariak, abuztuaren 3ko 90/2010 Ebazpena eman du. Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Lege Araubideak 44.2 artikuluan agindutakoa betez, hona hemen ebazpen horren xedapen zatia hitzez hitz:

Lehenengoa.- XABIER AINGERU LOPEZ DE ARREGUI VAZQUEZ alkateorde jaunaren esku uztea alkatearen eginkizun guztiak. Eskuordetze horrek abuztuaren 11tik 29 arte, biak barne, izango du indarra.

Bigarrena.- Dekretu hau emandakoan egiten den lehen osoko bilkuraren udalbatzari jakinaraztea eskuordetze horren berri.

Hirugarrena.- Dekretu hau ALHAON argitaratzea. Dena den, ebazpen honek 2010eko abuztuaren 11tik aurrera izango du indarra."

Burgu, 2010eko abuztuaren 3a.- Alkatea, NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA.

**ELBURGO**

5460

**Delegación de atribuciones**

Por esta Alcaldía Presidencia se ha dictado, con fecha 3 de agosto de 2010 la resolución num. 90, cuya parte dispositiva se transcribe literalmente, en cumplimiento de lo preceptuado en el artículo 44.2 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Corporaciones Locales:

Primer.- Delegar la totalidad de las atribuciones de la Alcaldía en el Teniente de Alcalde D. XABIER AINGERU LOPEZ DE ARREGUI VAZQUEZ, con efectos desde el día 11 hasta el 29 de agosto, ambos inclusive.

Segundo.- Dar cuenta al Ayuntamiento Pleno de la delegación efectuada en la primera sesión que este celebre con posterioridad a la fecha del presente Decreto.

Tercero.- Publicar el presente Decreto en el BOTHA, sin perjuicio de que surta efectos desde el día 11 de agosto de 2010."

En Elburgo, a 3 de agosto de 2010.- La Alcaldesa, NATIVIDAD LÓPEZ DE MUNAIN ALZOLA.

**GUARDIA**

5408

**Guardiako alde zaharrean terrazak jartzea arautzen duen zerga ordenantza.**

2010eko martxoaren 30ean egindako bilkuraren udalbatzak hartutako erabakia betez, honako zerga ordenantza hau jendaurrean egon den bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartuko da. Ondoren argitaratuko da testua oso-osorik:

**GUARDIAKO ALDE ZAHARREAN TERRAZAK JARTZEA  
ARAUTZEN DUEN ZERGA ORDENANTZA****I. KAPITULUA****1. artikulua.- Xeedea.**

1. Ordenantza honen xeedea da terrazak eta instalazio osagarriak, hala nola, eguzkitakoak, albo babesak, landareontziak eta abar bide publikoan jartzeari buruzko araubide teknikoa eta juridikoa ezartzea.

2. Aurreko idatz zatian jasotakoaren ondorioetarako, ostalritzako legezko jarduera bati (tabernak, jatetxeak, kafetegiak eta antzekoak) aldi batez osagarri zaikion mahai, eserleku eta instalazio mugikorrak dira terrazak, eta jardueraren lizenziaren titular diren pertsona fisiko eta juridikoei emango zaie horiek jartzeko baimena.

3. Ezin izango dira jarri 1. puntuak jasotzen ez dituen beste elementurik, adibidez, hozkailuak, armairuak eta abar.

**2. artikulua**

Udalerriko alde zaharrekoak eta erabilera publikokoak diren gune guztiei (bide publikoak, espazio libreak, berdeguneak eta abar) aplikatuko zaie ordenantza, zernahi titulartasunekoak direla ere, hau da, publikoak zein pribatuak. Benetako egoera zein den eta indarreko planteamientuko zehaztapenak nola aplikatzen diren, halaxe zehaztuko da erabilera publiko hori.

**II. KAPITULUA****PLAZETAKO ETA ESPAZIO LIBRE BEREZIETAKO INSTALAZIOAK****3. artikulua.- Plazak eta espazio libre bereziak**

1. Kasuan kasuko gorabeherak kontuan izanda eta ondoko muga orokorrean lerratuta ebatziko dira gune hauetan terrazak jartzeko eskaerak:

Errespetatuz egingo dira dauden lorategi, joko eta atseden guneak. Ez zaie inola ere oztoporik jarriko oinezkoei. Hortaz, ez da baimenik emango ohiko joan-etorriei mugak edo eragopenerak eragingo dizkien

**LAGUARDIA**

5408

**Ordenanza Fiscal Reguladora de la instalación de terrazas en el casco histórico de Laguardia.**

Transcurrido el plazo de exposición pública, sin que se hayan presentado reclamaciones, queda definitivamente aprobada en cumplimiento del acuerdo del pleno municipal en sesión de fecha 30 de marzo de 2010, la siguiente Ordenanza Fiscal, cuyo texto íntegro se publica a continuación.

**ORDENANZA MUNICIPAL REGULADORA DE LA INSTALACIÓN DE TERRAZAS EN EL CASCO HISTÓRICO****CAPÍTULO I****Artículo 1º.- Objeto**

1. El objeto de la presente Ordenanza es establecer el régimen técnico y jurídico de la instalación sobre la vía pública de terrazas e instalaciones complementarias tales como parasoles, protecciones laterales, jardineras, etc.

2. A los solos efectos de lo señalado en el apartado anterior, se entiende como terrazas el conjunto de mesas, sillas e instalaciones móviles provisionales que sirven de complemento temporal a una actividad legalizada del ramo de hostelería tales como bares, restaurantes, cafeterías y similares, siendo otorgada a las personas físicas o jurídicas titulares de la licencia de actividad.

3. Queda prohibida la instalación de elementos distintos de los señalados en el punto 1, tales como refrigeradores, armarios, etc.

**Artículo 2º.**

La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (vía pública, espacios libres, zonas verdes, etc) del Casco Histórico del municipio que sean de uso público, sean de titularidad pública o privada. Esta condición de uso público vendrá determinada en función tanto de la situación de hecho, como por aplicación de las determinaciones del planeamiento vigente.

**CAPÍTULO II****INSTALACIONES EN PLAZAS Y ESPACIOS LIBRES SINGULARES****Artículo 3º.- Plazas y espacios libres singulares**

1. Las solicitudes para la instalación de terrazas en estos espacios, se resolverán según las peculiaridades de cada caso concreto y con sujeción las siguientes limitaciones generales:

Se respetarán las zonas ajardinadas, zonas de juego y descanso existentes. En ningún caso se impedirá la fluidez del paso de los viandantes. Por ello, no se autorizará la instalación de terrazas en

terrazak jartzeko txikiak diren bide eta guneetan. Horretarako, libre utziko da oinezkoentzako bidearen zabaletik ehuneko 55, betiere, gutxienez, 1,5 metro utzita.

1. artikuluan definitutako lokalen titularrek baino ezin izango dute bide publikoa okupatzeko baimena eskatu, baldin eta lokalen fatxaden aurrealdeak bide publikoetara ematen badu.

Ezin izango dira jarri ez pasabide diren zonetan, ez alde zaharrera sartzeko guneetan, ez eta zeharbide eta kale estuetan ere.

Gune nagusi bera okupatzeko hainbat eskaera badaude, gunea zati dauden eskaerek ematen dutena izango da establezimenduek okupatu beharreko azalera.

Ezin izango da inola ere okupatu udalak berak okupatzeko baimendutako azalera baino gehiago.

Terraza instalatzearagatik fatxada okupatuta izango duten higiezinen jabeen idatzizko baimena eduki beharko da.

Eserlekuak eta mahaiak baino ezin izango dira jarri, debekatuta egongo delako kanpoko barrak, makinak, kioskoak, ainguratz finkoko toldoak eta abar jartzea. Ordenantza honetan, mahaien antzeko elementutzat joko dira upelak.

Terrazen esleipendunek altzariak bide publikotik kendu beharko dituzte, udalak hala eskatzen badie, eta hala egin behar bada, tradizionalak eta interes publikokoak diren ekitaldiak ospatzeko, eta beti kendu beharko dituzte, establezimenduak ixteko orduan.

### III. KAPITULUA

#### BALDINTZA TEKNIKOAK

##### 4. artikulua

Baimena duen establezimenduak baimendutako mahaiak eta eserlekuak baino ez dira jarriko. Gehienez ere lau eserleku jarriko dira mahai bakoitzeko. Edozein aldaketa egiteko, beste eskaera bat aurkeztu behar da eta lortu beharreko baimena lortu.

##### 5. artikulua

Okupatutako gunea behar bezain garbi eta ostalaritzako tresnarik gabe izan behar du, egun guztian, baimenaren titularrak, aldean-aldean erratzaz garbituta eta garbiketa lanak eginda. Establezimenduko langileek izango dute mahaien ardura; inola ere ez bezeroek.

Halaber, altzari guztiak sartu beharko dira lan eguna bukatzean establezimendu barrura, eta argi eta garbi utzi beharko da okupatutako gunea.

Koloreak: Tono neutroak erabili beharko dira (egurra, forjatua, kolore ilunak). Ezin izango da erabili kolore deigarri eta/edo bizirik. Horretarako, eta interesdunak zalantzak badu material edo kolore jakin bat araudi honetara egokitzen ote den, udaleko zerbitzu teknikoetara jo ahal izango du, argitu beharrekoa argitzeko, baimena eskatu baino lehen.

Berariaz debekatzen dira arrestian aipatutako baldintzak betetzen ez dituzten edo aipatutako materialak erabilitzen ez dituzten publicitateko terraza estandarrak.

Baimena emango da informatzeko xedea duten kartelak jartzeko, zeintzuek bete egin beharko dituzten beti udal honek zehaztutako formatu eta gehienezko neurriei buruzko arauak.

Beti onik zainduko dira altzariak, oro har (mahaiak, eserlekuak, eguzkitakoak, banagailuak eta abar).

Mahai bakoitzak bere eguzkitakoia izango du eta ez dira lurrera ainguratuko. Mahai bat baino gehiago estaltzen duten eguzkitakoek berrialzko baimena izango dute.

Gehienez ere hiru urteko epea ezartzen da, ordenantza hau indarrean sartzen denetik aurrera, terrazen titularrek altzariak berritu ditzaten, ordenantza honek jasotako ezaugarri eta baldintzetara egokitzea, hala badagokio.

aqueellas vías y espacios que por sus reducidas dimensiones limiten o impiden el tránsito normal. Debiendo dejarse para libre tránsito, el 55 por ciento del ancho de la vía, y en todo caso un mínimo de 1'5 metros.

Únicamente podrán solicitar licencia de ocupación de la vía pública en estos espacios los titulares de los locales definidos en el artículo 1 cuyos frentes de fachada den a los mismos.

Queda prohibida su instalación en las zonas señaladas como paso y en los accesos al casco histórico, así como en travesías y callejas.

En caso de concurrencia de diversas solicitudes de ocupación sobre un mismo espacio central, la superficie a ocupar por los distintos establecimientos, será el resultado de dividir el espacio por las solicitudes existentes.

La ocupación no podrá en ningún caso sobrepasar la superficie a ocupar autorizada por el Ayuntamiento.

Deberá contar con la autorización por escrito de todos los propietarios del inmueble cuya fachada resulte ocupada por la instalación de la terraza.

Sólo se referirá a sillas y mesas, estando prohibida la instalación de barras exteriores, máquinas, quioscos, toldos con anclaje fijo, etc. A efectos de esta ordenanza las barricas se consideran elemento similar a las mesas.

Los adjudicatarios de terrazas quedan obligados a retirar el mobiliario de la vía pública, cuando se les solicite por el Ayuntamiento, con motivo de la celebración de eventos tradicionales y de interés público que así lo requieran, sin derecho a compensación, y en todo caso durante el horario de cierre de los establecimientos.

### CAPÍTULO III

#### CONDICIONES TÉCNICAS

##### Artículo 4º

Se colocarán exclusivamente el número de mesas y sillas autorizado por establecimiento autorizado. Siendo el máximo de sillas por mesa cuatro. Para cualquier cambio, deberá presentar nueva solicitud y obtener la correspondiente autorización.

##### Artículo 5º

El titular de la autorización tiene la obligación de mantener, durante todo el día, el espacio ocupado en las debidas condiciones de limpieza e higiene y sin menaje, efectuando tareas de barrido y limpiezas periódicas. Será obligatorio, el atender las mesas por el personal del establecimiento, y en ningún caso por los clientes.

Asimismo, deberá retirar los elementos del mobiliario al término de cada jornada, al interior del establecimiento, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza.

Colores: Se deberán utilizar los tonos neutros (madera, forjado, oscuros). No pueden utilizarse colores llamativos y/o chillones. A estos efectos y en caso de que el interesado tenga dudas sobre la adecuación a la presente normativa de un determinado material o color, podrá dirigirse a los servicios técnicos municipales a fin de aclarar estos extremos con carácter previo a la solicitud de autorización.

Se prohíben expresamente las terrazas estándar de publicidad que incumplan las condiciones o materiales descritos anteriormente.

Se autorizará la colocación de carteles de carácter informativo, que deberán cumplir en todo caso, las normas de formato y medidas máximas que se determine por este Ayuntamiento.

El mobiliario en general (mesas, sillas, sombrillas, separadores, etc) se deberá mantener siempre en buen estado de conservación.

Las sombrillas serán individuales para cada mesa y no podrán ir ancladas al suelo. Para sombrillas que cubren más de una mesa, se requerirá licencia expresa.

Se establece un plazo máximo de tres años a partir de la entrada en vigor de la presente ordenanza, al objeto de que los titulares de terrazas puedan proceder a la renovación total del mobiliario para adaptarlo, en su caso, a las características y condiciones contempladas en esta ordenanza.

#### IV. KAPITULUA ORDUTEGIA

##### 6. artikulua

Ezin izango da auzokideen atsedena eten zarata, oihu edo halakorik eginda, batez ere 22:00etatik aurrera. Ezin izango da inola ere megafoniarik jarri kanpoaldean.

##### 7. artikulua

###### 1. Hau izango da okupazio ordutegia:

###### Jartzea:

- 11:00etatik aurrera, eta ez zaie oztoporik eragingo garbiketa lanei.

###### Kentzea:

###### Ekainaren 1etik irailaren 15era:

- Igandetik ostegunera: 24:00ak.
- Ostiral, larunbat eta jai-egun bezperetan: 01:00etan.

###### Urteko gainerako egunetan:

- Igandetik ostegunera: 23:00etan.
- Ostiral, larunbat eta jai-egun bezperetan: 24:00etan.

2. Zama lanetarako guneetan, ez da hasiko altzariak jartzeko ordutegia, harik eta zama lanetarako ordua bukatu arte.

##### 8. artikulua

Jatetxetarako baimenik ez duten establezimenduek ezin izango dute bazkaririk edo eta afaririk eman, bide publikoa okupatzen duten mahaietan.

Titularra alta emanda dagoen epigrafearen edo epigrafeen barruan sartzen diren produktuak eman ahal izango dira betiere, bide publikoan.

#### V. KAPITULUA BAIMEN BALDINTZAK

##### 9. artikulua

Udalaren baimena beharko da terrazak eta horien elementu osagarriak jarri ahal izateko.

1. Horretarako, aurkeztu beharreko eskaera arautua aurkeztu beharko du interesdunak, zelna UDALAK emango dion, eta horrekin batera aldameneko establezimenduen titularren baimena aurkeztu beharko du, establezimendu horien fatxada okupatu behar baldin badu instalazioak.

2. Baimen eskaerarekin batera, baimenaren funtsezko aldaketa bida (mahai kopurua, kokapena eta abar), memoria eta okupatu nahi den bide publikoaren azalera non dagoen adierazten duen planoa aurkeztu beharko da, baita zenbat mahai eta eserleku jarri nahi diren ere, eta hori udal zerbitzuek kontrolatzeko dute aldean-aldean.

3. Proiekta aldatzeko eskatuko da, segurtasun eta apaindura arrazoiak badira tarteko eta beharrezkotzat jotzen bada udalaren arrazoitutako iritziz.

4. Interesdunak modu formalean baino ez du jakinarazi beharko, UDALean aurkeztu beharreko eskaera baten bidez, titulartasun aldaketa, berritzea eta, oro har, baimenean funtsezko aldaketarik eragiten ez duten gorabeherak egon direla.

5. Aldiz, baimenaren edukian funtsezko aldaketarik egon bada, interesdunak eskatu egin beharko du baimena.

##### 10. artikulua

1. Baimenak eman egin direla ulertuko da, jabetza eskubidea izan ezik eta hirugarrenaren eskubidea gorabehera, eta ezin izango da babesik eskatu horiek oinarri, erantzukizun zibiletik salbuesteko edo erantzukizun txikiagoa izateko, baldin eta onuradunak horrelako erantzukizunak badu bere jarduerak eraginda; gainera, titularra ez dago salbuetsita beste baimen batzuk lortu behar izatetik.

2. Hauexek jasoko dira baimen agirian: instalazio baldintzak, elementu osagarriak, okupatuko den azalera, baimenaren indarraida eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako berezitasunak.

3. Baimen hau prekarioa izango da beti, eta baimendutako instalazioak bide publikotik kentzeko, partikularren kontura, agindu

#### CAPÍTULO IV HORARIOS

##### Artículo 6º

Queda prohibido turbar el reposo del vecindario con ruidos, gritos u otras molestias, con especial atención a partir de las 22:00 horas. En todo caso estará prohibida la instalación de megafonía exterior.

##### Artículo 7º

1. El horario de ocupación será el siguiente:

###### Instalación:

- Desde las 11:00 sin que entorpezca las labores de limpieza.

###### Retirada:

Del 1 de junio al 15 de septiembre:

- De domingo a jueves: 24:00 horas.

- Viernes, sábados y vísperas de festivos: 01:00 horas.

###### Resto del año:

- De domingo a jueves: 23:00 horas.

- Viernes, sábados y vísperas de festivos: 24:00 horas.

2. En las áreas donde exista carga y descarga, el horario de la instalación no se iniciará en tanto en cuanto no haya finalizado el horario de carga y descarga.

##### Artículo 8º

Queda prohibido el servicio de comidas y/o cenas en las mesas que ocupen la vía pública para aquello establecimientos que no tengan licencia de restaurante.

Podrá servirse, en todo caso, en la vía pública aquellos productos que al efecto encajen dentro del epígrafe o epigrafs en los que esté dado de alta su titular.

#### CAPÍTULO V

#### CONDICIONES DE AUTORIZACIÓN

##### Artículo 9º

La instalación de terrazas y de sus elementos auxiliares queda sujeta a la previa autorización municipal.

1. A estos efectos, el interesado deberá presentar la correspondiente solicitud normalizada que le será proporcionada por el AYUNTAMIENTO, a la que deberá acompañar la autorización de los titulares de los establecimientos adyacentes en el supuesto que se pretenda la instalación ocupando la fachada de los establecimientos colindantes.

2. A la solicitud de licencia cuando se trate de un cambio sustancial de la licencia (nº de mesas, ubicación, etc.) deberá juntarse, una memoria y un plano con indicación de la superficie de la vía pública a ocupar y el número de mesas y sillas a instalar, que será objeto de control periódico por parte de los servicios municipales.

3. Cuando por razones de seguridad y ornato, y previo juicio municipal razonado se estime necesario, se exigirán cambios en dicho proyecto.

4. En los supuestos en los que se pretenda un cambio de titularidad, renovación y en general todas aquellas circunstancias que no conlleven alteraciones sustanciales en el contenido de la autorización, el interesado sólo vendrá obligado a comunicar formalmente dicho cambio, mediante instancia a presentar en el AYUNTAMIENTO.

5. En el resto de supuestos que conlleven un cambio sustancial del contenido de la autorización, el interesado vendrá obligado a solicitar autorización.

##### Artículo 10º

1. Las licencias se entenderán siempre otorgadas, salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio del de tercero, no pudiendo ser invocadas para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido el beneficiario en el ejercicio de sus actividades, ni eximen a su titular de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.

2. En el documento de la licencia se fijarán las condiciones de la instalación y elementos auxiliares, superficie a ocupar, periodo de vigencia de la autorización, y demás particularidades que se estimen necesarias.

3. La licencia tendrá siempre carácter de precario y la autoridad municipal podrá ordenar, de forma razonada, la retirada de la vía

dezake udal agintea, modu arrazituan, hala gomendatzen badute trafiko, urbanizazio edo interes orokorreko beste edozein gorabeherak, eta ez da inolako eskubiderik izango horregatik kalte ordainik jasotzeko.

#### 11. artikulua

1. Baimenek urtebeteko indarraldia izango dute, gehienez, eta epe hori igarota, interesdunak eskatu egin beharko du baimena berritzea.

2. Indarraldia igarota, baimenaren titularrak eta, hala badagokio, kasuan kasuko establezimenduko titularrak kendu egin beharko du instalazioa eta bide publikoa lehengoratu.

3. Baimenean funtsezko aldaketarik eragingo ez duten hurrengo aldiatarako baimena berritzeko eskaererekin batera, inguruko establezimenduen adostasun berritua baino ez da aurkeztu beharko, salbu eta aldatu egin badira ados egotearen arrazolak.

#### 12. artikulua.

1. Izaera orokorreko eskakizunak eta ordenantza honek ezarritakoak betetzeaz gain, onik zaindu beharko du instalazioen titularrak okupatzeko baimena duen lurzorua, baita instalazioa bera eta elementu osagariak ere, argi eta garbi, eta segurtasun eta apainguratzeko beteta, eta horretarako, jarri beharreko baliabide guztia jarrí beharko ditu, hala nola, paperontziak, hautsontziak eta abar.

2. Instalazioaren titularrak ordaindu beharreko tasa eta gainerako zergak ordainduko dizkio udalari, ordenantza honek ezarritako zenbaitekoan eta moduan.

3. Erantzukizun zibileko kasuan kasuko aseguru poliza izan behar du nahitaez instalazioaren titularrak, eta aseguru horrek estali egingo du Instalazioak bide publikoan okupatzen duen eremua.

## VI. KAPITULUA

### ZEHAPEN ARAUBIDEA

#### 13. artikulua. Baimenik gabeko instalazioak

1. Bide publikoan baimenik gabe jarrita dauden terrazak kendu ahal izango ditu udal agintea, kautelaz eta berehala, eta gordailatu egingo ditu horretarako aukeratutako lekuak, eta hori ez da eragozpen izango jarrí beharreko zehapenak jartzeko.

2. Baimenaren indarraldia igaro eta gero, terrazek kendu gabe badiraute, udal baimenik ez izatearen egoeran egongo dira, diziplina ondorioetarako.

#### 14. artikulua. Arau hausteak

Ordenantza honen ondorioetarako, arinak eta larriak dira arauhausteak.

##### 1. Hauexek izango dira arau hauste arinak:

a.Orduetziz kanpo jartza terrazak

b.Baimendutakoak baino elementu gehiago jartza (mahaia, eserlekuak edo beste elementu osagari batzuk).

c.Baimendutako lekutik kanpo jartza mahaia, eserlekuak edo elementu osagariak.

d.Apain, seguru eta garbi ez izatea okupatzen den lekuak.

##### 2. Hauexek izango dira arau hauste larriak:

a.Baimenik gabe jartza terrazak eta beste elementu osagari batzuk.

b.Baimendutako baldintza teknikoak errespetatutako jartza ordenantza honi lotutako elementuak.

c.Hiru arau hauste arin egitea eta ebazpen irmo bidezko zehapena jartza, zehapen expedientea abiarazi baino urtebetetan lehenago.

#### 15. artikulua. Zehapenak

1. Isunekin zehatuko dira ordenantza honetako arau hausteak, eskala hauekin bat etorri:

a.Arau hauste arinak: 90 eurotik 300 euro arteko isuna eta/edo baimena kentzeaz gain instalazioa ere kentzea, berehala, baldin eta ez bada betetzen udalak agindutakoa.

pública, y a costa del particular, de las instalaciones autorizadas, cuando circunstancias del tráfico, urbanización o cualquier otra de interés general que así lo aconsejen, y en ello sin derecho a indemnización alguna.

#### Artículo 11º

1. Las autorizaciones tendrán un periodo de vigencia máxima de 1 año, de forma que el interesado vendrá obligado a solicitar la renovación de la misma una vez transcurrido dicho plazo.

2. Transcurrido el período de vigencia, el titular de la licencia, y en su caso, el del establecimiento correspondiente, deberá retirar toda la instalación devolviendo la vía pública a su estado anterior.

3. Las solicitudes de renovación de licencia para ulteriores períodos que no supongan cambios sustanciales en la misma, habrán de venir tan solo acompañadas de la renovación de la conformidad de los establecimientos adyacentes, salvo que hubieran variado las circunstancias que dieron origen a aquella.

#### Artículo 12º.

1. Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se derivan de la presente Ordenanza, el titular de la instalación queda obligado a mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, disponiendo para ello de todos los medios necesarios como papeleras, ceníceros, etc.

2. El titular de la instalación abonará al Ayuntamiento la tasa y demás exacciones que pudieran corresponderle, en la cuantía y forma establecidas en la ordenanza.

3. El titular de la instalación deberá tener suscrita obligatoriamente la correspondiente póliza de seguro de responsabilidad civil, con cobertura sobre el ámbito que ocupe de vía pública con dicha instalación.

## CAPÍTULO VI

### RÉGIMEN SANCIONADOR

#### Artículo 13º. Instalaciones sin licencia

1. La autoridad municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, las terrazas instaladas sin licencia en la vía pública y proceder a su deposito en lugar designado a ello, sin perjuicio de la imposición de las sanciones oportunas.

2. La permanencia de terrazas, tras la finalización del periodo de vigencia de la licencia será asimilada, a los presentes efectos disciplinarios, a la situación de falta de autorización municipal.

#### Artículo 14º. De las infracciones

A los efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasifican en leves y graves.

##### 1. Tendrán la consideración de infracciones leves:

a.Colocación de terrazas fuera del horario establecido.

b.Colocación de elementos (mesas, sillas u otros elementos auxiliares) excediendo el número de elementos autorizado.

c.La ubicación de mesas, sillas o elementos auxiliares fuera de la ubicación autorizada.

d.No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato, seguridad y limpieza.

##### 2. Tendrán la consideración de infracciones graves:

a.La instalación de terrazas y otros elementos auxiliares sin licencia.

b.La colocación de elementos sujetos a la presente ordenanza sin respetar las condiciones técnicas autorizadas.

c.La comisión de tres infracciones leves, con imposición de sanción por resolución firma, durante el año anterior al inicio del expediente sancionador.

#### Artículo 15º. De las sanciones

1. Las infracciones de la presente Ordenanza serán sancionadas con multa de conformidad con las siguientes escalas:

a.Infracciones leves con multa de 90 a 300 euros y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.

b.Arau hauste larriak: 300 eurotik 900 euro arteko isuna eta/edo instalazioa gaitasungabetzea, 2 urte, ordenanza honek araututako baimenak lortzeko hurrengotan, egin duenaren larria kontuan izanda.

2. Instalazioa legeztatzen bada geroago, ez bada berriz ere araua hausten eta ez bazaio aurka egiten udalak eskatutakoari, dirutara mugatu ahal izango da zehapena.

#### 16. artikulua. Zehapen expedientea.

Kasuan kasuko expedientearen instrukzioaren ondoren baino ezin izango dira zehapenak jarri, eta EAEko administrazio publikoen zehapen ahalmena arautzen duen legeak xedatutakoarekin bat etorriz izapidezko da expedientea.

#### 17. artikulua. Beteaztez subsidiarioa,

1. Ez badu aintzat hartzen instalazioaren erantzuleak bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udalaren agindua, ordenanza honek jasotako kasuetan, administrazioak modu subsidiarioan kendu ahal izango ditu, eta gordailatu egingo ditu horretarako aukeratutako lekuak; hortik jaso egin ahal izango ditu jabeak, ordaindu beharrekoa ordaindu ondoren, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legeak 98. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

2. Artikulu honek xedatutakoarekin bat etoriz kendutako elementuak ezin izango dira biltegiratuta egon 6 hilabete baino gehiago, eta epe hori igarota jabeak ez baditu jaso, udalak suntsitu, saldu edo laga egin ahal izango ditu.

### XEDAPEN IRAGANKORRA

Egokitze aldia ezarriko da 2013ko ekainaren 30 arte, terraztarako emandako baimenak ordenanza honetan ezarritako baldintza teknikoetara egokitu daitzezen. Epe horretatik aurrera, terrazaren osagai guztiak bete egin beharko dituzte ordenanza honek ezarritako baldintza teknikoak.

### AZKEN XEDAPENAK

1. Ordenantzaren testu osoa ALHAOn argitaratu eta hamabost egun baliodun igaro ondoren eragingo ditu ondorioak ordenanza honek.

2. Berariaz ematen zaio baimena udal aginteari, baimenak emateko eta ordenanza hau interpretatu, argitu eta garatzeko, administrazio prozedura erkideari buruzko legeak jasotako printzipioekin bat etorriz.

### ERANSKINA

#### TARIFAK

35,50 EURO ETA LAU ESERLEKU MAHAI BAKOTZEKO (URTEAN)

25,35 EURO UPEL BAKOTZEKO EDO ANTZEKO ELEMENTU BAKOTZEKO (URTEAN)

Guardia, 2010eko abuztuaren 3a.- Alkate-lehendakaria, MARÍA JESÚS AMELIBIA ARGOTE.

### MOREDA

5443

#### Eskuduntzak eskuordetzea

Alkatetzaren 2009ko abuztuaren 2ko Dekretuaren bidez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 23.3 artikuluan eta Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegiak 44.1., 44.2., 46., 47. eta 48. artikuluetan xedatutakoari jarraituz, ondoko hau erabaki du alkateak:

LEHENNGOA.- Juan Antonio López de Castro alkateorde jaunaren esku uztea alkatearen zereginak, nire ordez jardun dezan ez nagoen bitartean, hain zuzen ere, abuztuaren 8tik 16ra bitartean, biak barne.

b.Infracciones graves con multa de 300 a 900 euros y/o inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en la presente ordenanza, durante el plazo de 2 años, a tenor de la gravedad de los hechos.

2. Si la instalación fuera legalizada posteriormente, y no se hubiese dado reiteración, o resistencia a los requerimientos municipales, la sanción se podrá limitar a la sanción económica.

#### Artículo 16º. Expediente sancionador.

Las sanciones que procedan sólo podrán imponerse previa la instrucción del correspondiente expediente, que será tratado de conformidad con lo dispuesto en la Ley que regula la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas de la CAV.

#### Artículo 17º. Ejecución subsidiaria,

1. Cuando el responsable de la instalación hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de elementos instalados en la vía pública, en los supuestos previstos en la presente Ordenanza, la Administración podrá proceder subsidiariamente al levantamiento de los mismos, quedando depositados en el lugar designado para ello, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo abono de los gastos correspondientes, todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 98 de la Ley 30/92 de 26 de noviembre, Ley de Procedimiento Administrativo Común.

2. Los elementos que hayan sido retirados conforme a lo dispuesto en el presente artículo, no podrán permanecer almacenados durante un plazo superior a 6 meses, transcurrido el cual sin que por parte del interesado se hayan retirado, el Ayuntamiento podrá proceder a su destrucción, venta o cesión.

### DISPOSICIÓN TRANSITORIA

A fin de permitir una paulatina adaptación de las autorizaciones concedidas de terrazas a las condiciones técnicas establecidas en la presente ordenanza, se establece un periodo de adaptación hasta el 30 de junio de 2013. A partir de esta fecha, todos los elementos componentes de las terrazas deberán cumplir con las condiciones técnicas establecidas en la presente Ordenanza.

### DISPOSICIONES FINALES

1. La presente Ordenanza surtirá efectos una vez transcurridos quince días hábiles desde la publicación del texto íntegro de la misma en el BOTHA.

2. Se autoriza expresamente a la autoridad municipal para el otorgamiento de licencias, a interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza conforme a los principios recogidos en la legislación sobre procedimiento administrativo común.

### ANEXO

#### TARIFAS

35,50 EUROS POR CADA MESA Y HASTA 4 SILLAS (TEMPORADA ANUAL)

25,35 EUROS POR CADA BARRICA U OTROS ELEMENTOS ANÁLOGOS (TEMPORADA ANUAL)

Laguardia, 3 de agosto de 2010.- La Alcaldesa Presidenta, MARÍA JESÚS AMELIBIA ARGOTE.

### MOREDA DE ÁLAVA

5443

#### Delegación de atribuciones

Por Decreto de Alcaldía, de fecha de 2 de agosto de 2009 y en virtud de lo establecido en el artículo 23.3 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local y artículos 44.1, 44.2, 46, 47 y 48 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, la Señora Alcaldesa ha resuelto:

PRIMERO.- Delegar en el Teniente de Alcalde D. Juan Antonio López de Castro, las atribuciones de la Alcaldesa, para que me sustituya en mi ausencia desde el día el 8 al 16 de agosto, ambos inclusive.